

'Chicago' nobela kaleratu du Aitziber Etxeberriak

Intza Trula 2026ko maiatzaren 29a

Entzun ▼



Aitziber Etxeberria, 'Chicago' liburua eskuetan duela. (Erein)

2009. urtea da, eta Ingriden bere ama Elisaren bizitza ikertuko du. Izan ere, Elisak Donostiatik Chicagora alde egin zuen 1975. urtean, beretzat eta senideentzat etorkizun hobeago bat eraikitzeko nahiarekin. Duela sei urte argitaratutako Olivetti nobelaren jarraipena da *Chicago*, baina idazleak argitu du ez dela beharrezkoa lehenengo nobela hori irakurtzea bigarrena ulertzeko.

Zer gertatu zitzaion amari? Galdera hori du buruan Ingriden, *Chicago* nobelako protagonistetako batek. Aitaren heriotzaren ostean, bere ama zenaren, Elisaren, bizitza ikertu nahi du, barruan duen korapiloa askatzeko. Aitziber Etxeberria idazle zarautzarrak Erein argitaletxearekin kaleratu du nobela, eta 2020an argitaratutako *Olivetti* liburuen jarraipena da.

Bi istorio tartekatzen ditu nobelak: bata *Chicago* gertatzen da, 1975. urtean, eta, bestea, Donostian, 2009an. Idazleak kontatu duen moduan, 1975. urtean Donostiatik Chicagora alde egin zuen Elisak, Ingriden amak. Frankismo garaia zen, eta Elisa "itota" sentitzen zen Gipuzkoako hiriburuan. Etxeberriak zehaztu duenez, ama eta emaztea zen Elisa, baina baita zientzialaria ere, eta garai hartan ez zuen Donostian bere lana nahi bezala gauzatzeko aukerarik izan.

Garbi zuen etorkizun hobeago bat nahi zuela, bai beretzat eta baita bere familiarentzat ere, eta horretarako borrokatuko zuen. Lan eskaintza bat jaso zuen orduan, *Chicago*, eta hura onartu eta bertara joatea erabaki zuen. Etxeberriak aitortu duenez, erabakia hartzea "zaila" egin zitzaion Elisari, "familia atzean utzi behar izan baitzuen".

Idazlearen iritziz, istorioa ulertzeko beharrezkoa da garaiko egoera politiko eta soziala gogora ekartzeko: "Mundua Gerra Hotzean murgilduta zegoen, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek izugarriko lehia zuten beraien artean, ea nork gobernatuko zuen mundua, eta lehia teknologikoa zein zientifikoa ikaragarriak ziren. Aldi berean, Estatu Batuetan komunismoaren aurkako izugarriko jazarpena zegoen, eta Vietnamgo gerra ere amaitu gabe zegoen". Horrez aparte, idazleak azaldu du garai hartan "oso ezberdina" zela zuria ala beltza izan: "Beltzak bigarren mailako biztanleak ziren, eskubideak zapalduta zituzten, lan eskasak zituzten, eta ikasketak egiteko aukera gutxi zituzten".

Hain justu, gizarte horretara iristen da Elisa, mundu berri bat eraikitzeko nahiarekin. Energia nuklearraren laborategi ospetsu batean hasten da lanean, baina azkar ohartuko da ez duela bat egiten enpresa horrek energia kudeatzeko duen moduarekin. Horregatik, talde klandestino batean sartuko da. Kezka eta buruhauste ugari sortuko dizkio egoera horrek, eta behin eta berriz galdetuko dio bere buruari ea egiten ari denak merezi duen.

Donostian, 2009. urtean

Donostian bizi da Ingrid, eta bost urte inguru zituela galdu zuen ama. Betidanik pentsatu izan du ama arrazoi naturalengatik hil zela, eta hortik haratago ez zegoela jakin beharreko beste ezer. 2009. urtean, ordea, aita galduko du Ingriden, eta ohartuko da ez dakiela ezer amaren bizitzaren inguruan, ezta bere heriotzaren inguruan ere. Galdera ugari ditu.

Horregatik, eta bere lagun tatuatzailearen laguntzarekin, amaren bizitza ikertzen hasiko da. Erantzunak behar ditu gazteak, bere barruan duen korapilo hori askatu ahal izateko. Minduta sentitzen da, eta une gogorak biziko ditu.

Etxeberriak dio intriga nobela bat dela *Chicago*: "Ikerketa bat da, ama eta alaba baten arteko bilaketa bat". Era berean, erritmo "bizi" du, eta irakurtzeko "erraza" da. Gainera, esan du irakurle guztiei zuzenduta dagoela; hau da, ez dela beharrezkoa aurretik *Olivetti* liburua irakurri behar izatea bigarren zati hau ulertzeko. "Nobela hau hasi eta amaitu egiten den istorio bat da", dio.

Halaber, emakumeen aldeko aldarrikapen bat ere badela azpimarratu du Etxeberriak. "Emakumeen lana askotan oztopatua izan da, eta garai hartan gehiago. Elisa ezkutuan lan egin zuten emakume horietan oinarrituta dago", azaldu du idazleak.

KULTURA ZARAUTZ

Zarautz Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalen lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun ▼

Klimb Zarautz
Zarautz - kirola

Kattalin bitxitegia
Zarautz - Bitxitegiak eta erloju dendak

Batela Prest
Zarautz - Janari dendak

Maitena Hertz Klinika
Zarautz - Hertz klinika

Eneko Ferradas izango da Zarauzko futbol taldeko mutilen lehen taldeko entrenatzaile berria

Bisita gidatua antolatuta du hezeguneetan zehar udalak larunbaterako

'Salir de ETA: una historia de abandono, expulsión y arrepentimiento' liburua aurkeztuko du Eider Nafarretrek ostrialean

Emanaldia: Zeharkako flauta

Ikusienak

Abian da Haimar Zubeldia Klasikoa
Mireia Galarza Bastida
mai 31. **KIROLA**

Egoitz Aranek ez du Realean jarraituko
Julene Frantzesena
eka 01, 13:45 **KIROLA**

Hitzak, hitzegiak eta kontzentrazioa nagusi, Hitz Gurutzatuen Udaberriko Txapelketan
Mireia Galarza Bastida eta Usua Ganin
mai 31, 16:30 **KULTURA**

Erik Balentziagak Europako Liga irabazi du MT Melsungen taldearekin
Ekaitz Etxabe
eka 01, 10:30 **KIROLA**

Ane Mendizabal zarautzarrak garaipena eskuratu du Ubidestroi Trailen
Enara Anzabarreta
eka 01, 13:30 **KIROLA**

Ulacia ZKEK ez du Bigarren FEB mailara igotzea lortu
Ekaitz Etxabe
eka 01, 15:00 **KIROLA**

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Araba kalea 27 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
Telefona: 943 89 00 17 | Helbide elektronikoa: zarautz@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

- AIARALDEA AIKOR AIURRI ALEA AMEZTI ANBOTO ANTXETA IRRATIA ATARIA AZPEITIA GUKA AZKOITIA GUKA BARRENA
- BEGITU ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GEURIA GOIENA GOIERRI TELEBISTA GUAIXE GUKA GUKA TELEBISTA HIRUKA
- KRONIKA MAILOPE NOAUA OIZMENDI TELEBISTA ORIO GUKA TXINTXARRI ZARAUTZ GUKA ZUMAIA GUKA Z8 KANALA

Matx Gurean Ttap

Tokikom publikitate